

Autismoari buruz Ohartarazteko Egunaren Manifestua 2026ko apirilaren 2a

2026ko Autismoaz Ohartarazteko Munduko Egunaren esparruan, Autismo Españatik autisten ikusgarritasunarekin, eskubideekin eta inklusioarekin dugun konpromisoa berresten dugu, Autismo Europak sustatutako "Pertsona autisten eskubideen eta inklusioaren aldeko manifestua" ri atxikiz.

Izan ere, autismoa duten pertsonak ez dira ikusezinak, gure gizartearen parte dira, eta berdintasunean parte hartzeko eskubidea dute. Gainera, anitzak dira, bakoitzak bere egoerari eta bere bizi-etapari egokitutako laguntza indibidualizatuak behar dituelako.

Administrazioek laguntza espezializatuak bermatu behar dituzte, autista guztiek eta haien familiek bizitza osoa izan dezaten, horretarako eskubidea baitute.

"Not invisible": Pertsona autisten eskubideen eta inklusioaren aldeko manifestua

Kalkuluen arabera, Europan zazpi milioi pertsona autistak dira, eta horietako 500.000 gure herrialdean bizi dira. "Desgaitasun ikusezina" duten pertsonak direla esaten da askotan, baina aurre egin beharreko oztopoak oso errealak dira: diskriminazioa bizitzako esparru guztietan, laguntza egokirik eza, zerbitzu eskuraezinak, aurreiritziak... Gehiegitan, autistak oraindik ere ez dira ikusten, ez dira entzuten eta ez dira kontuan hartzen Europako, nazioko eta eskualdeko politika eta praktketan.

Horregatik, 2026 honetan, Autismo Europarekin batera, pertsona autistak eskubideen titular, herritar eta zergadun gisa ikus eta onar daitezela eskatzen jarraitzen dugu. Hau da, erabaki politikoak hartzeaz arduratzen diren pertsonen beren lehentasunak kontuan hartzea aldarrikatzen dugu. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Europako Estrategiaren hurrengo fasean.

Ikusgai izateak esan nahi du:

- Gure bizitzetan aditu gisa onartuak izatea.
- Egiatzko eta errespetuzko ordezkaritza izatea, eta gizartearen esparru guztietan ulertuak eta entzunak izatea.
- Duintasunez eta laguntzarekin komunitatean bizi ahal izatea.
- Ikasteko eta lan egiteko aukera berdinak izatea.
- Gizarteko zerbitzuen onuradun izatea baldintza berdinetan Europa osoan.

Ilido horretan, Autismo Europarekin batera, honako hau eskatzen dugu:

1. Autistak kontuan hartzea:

- Autistek eta haiek ordezkatzeko dituzten erakundeek politika publikoen diseinuan, ezarpenetan eta jarraipenean parte hartzea.
- Estatu kideek babes-erregimenak aldatzea, erabakiak hartzeko laguntza-sistemen bidez, pertsona autista guztien gaitasun juridikoa errespetatzeko.

2. Desinformazioaren aurkako sentsibilizazio eta borroka handiagoa

- Autisten ordezkaritza inklusiboa duten sentsibilizazio-kanpainak, laguntza-premia handiak dituzten pertsonenak barne.
- Autismoari buruzko desinformazioari eta uste faltsuei aurre egiteko neurri aktiboak.
- Autismoaren arloko zerbitzu espezifiko eta zerbitzu orokorretako profesionalen prestakuntza, ebidentzian eta eskubideetan oinarrituta.

3. Laguntzak bizi-ziklo osoan zehar

- Desinstituzionalizazio-estrategiak eraginkortasunez inplementatzea, Europar Batasunaren finantzaketa eta jarraipenaren babesarekin.
- Kalitatezko laguntza-zerbitzuetan inbertitzea, pertsonarengan zentratutako zerbitzu espezifikoak indartuz, bizi-ziklo osoan zehar komunitatean eskuragarri daudenak.
- Zaintzaile informalentzako errekonozimendu eta laguntza egokiak, atsedenerako sarbidea, diru-sarreraren babesa eta pentsio-eskubideak barne.

4. Hezkuntzako eta enpleguko laguntzak

- Hezkuntza inklusiboko sistemetan inbertitzea, laguntza egokiekin, langile prestatuekin eta ikaskuntza-ingurune irisgarriekin.
- Pertsona autistentzako enplegu-neurri espezifikoak, laguntza pertsonalizatuak, hautaketa-prozesu irisgarriak eta enplegatzailerentzako prestakuntza barne.

5. Irisgarritasuna eta mugikortasuna sustatzea

- Irisgarritasun-arauak zorrotz aplikatzea eta zabaltzea, irisgarritasun sentsoriala, kognitiboa eta komunikatiboa barne.
- Desgaitasuna baloratzeko eta desgaitasun-izaera aitortzeko printzipio bateratuak garatzea EB osoan.
- Mugaz gaindiko mugikortasunerako informazio eskuragarria eta administrazio-prozedura sinplifikatuak.

Ikusgarritasunetik aldaketara

Autismo Europatik eta Autismo Españatik Europa, nazio eta eskualde mailako erabakitzaile politikoei autistekin eta horiek ordezkatzten dituzten erakundeekin lan egiteko eskatzen diegu, inor atzean geratzen ez dela bermatzeko.

Izan ere, autistek ez dute ikusezinak izan behar. Bizitzako alderdi guztietan aitortuak, baloratuak eta lagunduak izateko eskubidea dute. Ikusgarritasun horrek pertsonen bizitzan benetako eskubide, baliabide eta aldaketak ekarri behar ditu.

Herritarrek autismoaren berezitasuna eta aldagarritasun zabala ezagutu eta ulertu behar dute, eta oraindik indarrean dauden mitoak baztertu. Informazio gehiago, epaiketa gutxiago eta laguntza gehiago behar dira autismoa duten pertsonen baldintza berdinetan eta aukera berberekin parte hartu ahal izango duten gizartea eraikitzeko. Ekiteko ordua da.

2026ko apirilaren 2a